



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

## 1. Unitatea: KILO BAT ISTORIO

### GURE SUSTRAIAK

#### Sarrera

Ordiziako haurrek beren herria hobeto ezagutzea eta horretarako baliabideak eskaintzea da “Ordizia: kilo bat istorio” unitate didaktiko honen helburu nagusia. Proiektuaren oinarrian ideia hauxe zegoen: Ordiziako leku izenak haur eta gaztetxoengana helarazteko modua aurkitzea. Baina, izena duenak izana daukanez, eta leku izen bakoitzak Ordiziaren historiaren zatitxo bat islatzen duenez, unitateak ikuspegi zabalago bat behar zuela erabaki zen. Halaber, haurren motibazioa eta jakinmina pizteko beraien hurbileko errealitatetik abiatzeak duen garrantziak jabetuta, aukera ezinhobea zen herriaren inguruko material didaktiko bat prestatzea.

Historiaren haritik tiraka antolatu da lana, eta hiru liburuxketan aurkezteko asmoarekin. Lehenengo unitate honek Ordiziaren sorreratik aro modernora bitarteko epea hartzen du, baina iraganaren eta orainaren arteko lotura egiten du etengabe. Lehen Hezkuntzako lehen zikloko hurrei begira prestatu da, curriculumak ziklo horretarako jasotzen dituen eduki eta helburuak aintzat hartua. Adin horretan, haurra inguru natural eta sozialean izan diren gertaera eta fenomenoaren arteko loturak egiten hasten da, eta, horregatik, denboran eta espazioan kokatzeko kontzeptuen lanketa proposatzen du unitateak.

Bestalde, kultur ondarea transmititzea eta herritartasuna sustatzea dira proiektu honen beste oinarrietako bat; bizi garen herria hobeto ezagutzeko ahalegina ez ezik, komunitate sentimendua indartze ahalegina ere bada.

Unitate honen erabilerari dagokionez, ikasleentzako dinamikoa eta irakasleentzako malgua izan nahi du. Horregatik, irakasleei zuzendutako gidan proposamen ugari egiten dira, unitatean jasotzen direnekin osagarri edo-ta alternatibo izan daitezkeenak. Horien lanketa laguntzeko, informazio osagarria eskaintzen da webgunean; baita ere jarduerak modu interaktiboan lantzeko tresnak ere. Gainera, eskolatik kanpo atera eta haurrek beraien ingurua behatu eta ikertu dezaten bultzatu nahi da; parte-hartze soziala garatzea; informazioa bildu, ordenatu eta komunikatzea...



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

## Unitatearen helburu nagusiak

- ✗ Ikasleek, Ordiziak denboraren poderioz izan duen aldaketa eta eraldaketa hautematea eta honen aurrean hausnarketa egitea: zer, noiz, nola eta zergatik galderei modu egokian erantzuteko gaitasuna lortuz.
- ✗ Eguneroko bizitzako oinarrizko alderdiek; janaria, etxebizitza, arropa, lanbideak... urteetan barrena izan duten bilakaeraz jabetzea.
- ✗ Ordiziako kaleak, auzoak, eta zenbait toki eta etxe beren izenez ezagutzea.
- ✗ Ordiziarekin zerikusia duten ipuin, istorio, argazki, bertso eta kantuekin gozatzea.
- ✗ Informazioa lortzeko eta ezagutza trukatzeko informazio iturri desberdinetara jotzea: komunikazio-teknologiak, herriko jendea, testu idatziak, grabazioak...
- ✗ Iturri desberdinetatik jasotako informazio hori modu egokian antolatu eta ahoz nahiz idatziz era ulergarrian adierazteko gai izatea.
- ✗ Euskalkia ezagutzea eta honen adierazpide nagusiak erabiltzen trebatzea; hiztegia, esaerak, espresioak...

## Unitateko jardueren azalpena

### HERRIAREN BILAKAERA

*Lehen hala, orain hola, gero ez jakin nola*

*JARDUERA: Esaldi hauek eta ondoan azaltzen diren argazkiek zer adierazi nahi ote duten galdetuko diegu ikasleei.*

*Liburuxkako 1. orrialdea.*

### AURKEZPENA

Lehen unitate honetako protagonista Kattalin da, unitatea zuzenduta dagoen ikasleen adineko neskato ordiziarra. Berak Murumendiko Mariren ahotik entzundako kontuekin eta bere aitonaren artaldeko ardi baten laguntzarekin gidatuko gaitu unitatean barrena. Beraien ahotik jakingo ditugu gure herriko kontu asko eta asko eta beraiek jarriko gaituzte lanean.

Unitatea horrelaxe hasiko dugu: Kattalinek bere burua aurkeztuko du, nolakoa den esango digu eta bere zaletasunak ere bai, horien artean abestea. Hori dela eta "Ordiziarrak gera" abestia abestuko digu eta guk ere bai berarekin. ORDIZIARRAK GARA eta horretaz harro



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

gandenez, gure herria ezagutzea eta besteei ezagutaraztea zein garrantzitsua den azpimarratuko diegu.

*JARDUERA: Ikasleei, Kattalinek egin duen moduan, beraien burua aurkez dezaten eskatuko diegu: nolakoak diren eta zer gustatzen zaien... Ahal izanez gero, Marabara, maraberi... hitz magikoak erabiliz: **Eta zu nolakoa zara? Esan, esan...***

*Liburuxkako 2. orrialdea.*

## 1- ORDIZIA GAUR EGUN

### NOLA IKUSTEN DUZU ZUK ORDIZIA?

Ikasleek marrazki baten bidez Ordizia nola ikusten duten adierazi beharko dute. Marrazki horiekin erakusketa bat egin daiteke.

*JARDUERA: Nola ikusten duzu zuk Ordizia? Norbaitek Ordiziari buruzko marrazkia egiteko eskatuko balizu, zer marraztuko zenuke? Hartu papera eta arkatza eta ekin lanari!*

*Liburuxkako 2. orrialdea.*

### LAGUNTZA BEHAR DUT!

Kattalin ikasleen laguntzarekin gure herria aurkezten saiatuko da, gure herria hobeto ezagutarazten: noiz eta nola sortu zen, nolakoa zen hasiera batean, nola hazi den, ordiziarrek nola bizi izan diren, azokaren garrantzia... Hau izango da azken batean unitatean ikasiko dutena.

Zenbait argazki lagun dituztela ikasleek, ahoz, Ordiziari buruz dakitena azaltzeko aukera izango dute. Tartean Ordiziakoak ez diren bi argazki identifikatu beharko dituzte: laugarrena, Beasaingo Igartza jauregia eta seigarrena, Arama.



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*JARDUERA: Ezertan hasi baino lehen, herria ezagutzen ote duzun jakin nahi dut. Hemen bederatzi argazki dituzu, baina bi ez dira Ordiziakoak. Zeintzuk ote dira?*

*Liburuxkako 3. orrialdea.*

*PROPOSAMENA: Aparteko orri batean gelan aipatu diren ideiak idazteko eskatuko diegu ikasleei. Adibidez, Ordizian asteazkena azoka eguna izaten da.*

## IPUINA

Ikasleek Patxi Zubizarretaren ipuin bat irakurri eta entzungo dute. Ipuin honen bidez zera azpimarratu nahi da:

- X** Gure inguruan artzantzak izan duen garrantzia. Aspaldiko ogibidea dela eta gainera Ordiziarekin harreman estua duela: hor dugu gaztaren kofradia, iraileko Euskal Festetako gazta-enkantea, udaberrian artzantzaren inguruan egiten den azoka berezia...
- X** Murumendiko Mariren magiaren xarma. Mitologiak sortzen duen zirraratxo horretara hurbilduko ditugu ikasleak eta bide batez, Mari jainkosaren kondaira kontatzeko aprobeitza daiteke.
- X** Kalekume hitzaren esanahia azal diezaiekegu.

Ipuina adi-adi irakurtzeko eskatuko diegu ikasleei eta bertan azpimarratzeko edo idazteko gehien gustatu zaien esaldia, paragrafoa edo zatia eta hori arrazoitzen ahalegindu irakasle eta gainerako ikaskideen aurrean. Hori guztia landu ondoren, ipuinari izenburua jartzeko eska diezaiekegu. Hau taldeka egin daiteke; arbelean idatzi taldeetan adostutatkoa. Azkenean, berriz, denen artean bat aukeratu eta izenburu hori jarri ipuinari.

*JARDUERA:*

- X** *Adi-adi irakurriko zenuen ipuina, ezta? Azpimarratu gehien gustatu zaizun esaldia edo zatia.*
- X** *Kattalineek esaten digu bera Kalekumea dela, zer esan nahi ote digu horrekin?*
- X** *Zergatik hitz egiten ote dio Kattalineek Mariri hika?*



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

**X** Konturatuko zinen ipuinak ez duela izenbururik. Ausartuko al zinateke izenburu polit bat jartzen?

Liburuxkako 4. eta 5. orrialdeak.

**PROPOSAMENA:**

**X** Xabier Kintanaren “Artzaina eta lamia” ipuina irakur daiteke eta lamiak zer diren azaltzeko aprobeitza daiteke.

**X** “Euskal lelendak” bilduman oso ipuin politak daude. Horien artean egokienak aukeratu eta irakurri. Gelan irakur daitezke edo etxerako lana ere izan daiteke.

**Irakasleek ikasleei ahoz kontatzeko: Murumendiko Mariren istorioa**

Muruko dama sarri joaten omen da zeruan zehar hegan, garrezko igitai baten eran, kazkabar harri erauntsiak sortzen ditu eta noizean behin, emakume eder baten tankeran agertzen da bere lurpeko aterpearen atarian adatsa orrazten.

Halaxe ikusi zuen Beasaingo Muruguene baserriko semeak eta berarekin zeharo maitemindu eta ezkondu egin zen. Zazpi seme-alaba izan zituzten. Mari ez zen elizara joaten eta haurrak ere ez zituen bataiatu. Hori zela eta, Mariren senarra ez zen oso lasai bizi eta egun batean, haurrak bataiatzea erabaki zuen. Haurrak hartu eta orga batean jarri zituen, gero haiekin batera sokaz lotu zuen ama ere ihes egin ez zezan. Elizarako bidean zihoazela, bat-batean, Mari sugarrez inguratu zen, lokarriak erre eta Muruguenatik hurbil dagoen haitz baten gainera salto egin zuen.

Oinatz bat bertan utzi eta Mururantz joan zen hegan, oihuka: “zazpi umeak zerurako, ni Mururako; Muruguenan ez da sekula gaixorik edo elbarririk faltako”

Beraz, noizbait zeruan “su bola” bat abiadura handian pasatzen ikusten baduzu, ziurrenik Murumendiko Mari izango da; izan ere, bere bizitokirik nagusiena Murumendin badago ere, inguruko beste mendi batzuetan ere bizi ohi da eta horrela mugitzen da batetik bestera; hau da, “su bola” baten antzera. (Joxe Migel Barandiaranen Euskal Herriaren Mitologia I)



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

## AIRETIK BEGIRA

Bi orrialde hartzen dituen airetik ateratako argazki handi horren bidez Ordizia gaur egun nolakoa den azalduko diegu ikasleei.

Marik, batetik bestera dabilenean, airetik bazterrak ikusten dituen moduan ikusiko ditu Kattalineek ere. Ikasleak ere ikuspegi horretatik begira jarriko ditugu eta zenbat toki identifikatzeko gai diren ikusi ahal izango dugu. Argazkian Ordiziako hainbat toki nabarmenduko ditugu: Oiangu parkea, Txindoki, Oria ibaia, San Bartolome basiliza, Plaza Nagusia, Jakintza ikastola, Urdaneta ikastetxea, Barrena parkea, beraien auzoa eta etxea... Ordiziak inguruko herrieekin dituen mugak ere erakusteko aukera izango dugu. Oso ariketa ona da ikasleek ikuspegi horretan kokatzeko beraien buruak, askotan bertatik bertara dutena besterik ez baitute ikusten.

Hor aipatzen zaizkien tokiak taldeka, elkarrekin hitz eginez aurkitu beharko dituzte. Kattalineek esango die Marik ez dituela ezagutzen egungo umeen herriko txoko kuttunenak. Beraien txoko kuttuna zein den idazteko eskatuko diegu.

### JARDUERA:

**X Bilatu!!!** Ikusten, ikusten al duzu?

- Txindoki
- Kiroldegia eta futbol-zelaia
- ...

**X Zer gehiago ikusten duzu?**

**X Zein da Ordiziako zure txoko kuttunena?**

Unitatearen 6. eta 7 orrialdeak.

## 2- ORDICIA, VILAFRANCA..., ORDIZIA

### ASPALDIKOAK

Ordizia ez ezinez ez itxuraz, ez dela beti guk gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa izan adieraziko diegu ikasleei. Hala, Ordiziak urteetan zehar gaur egun arte izan duen bilakaera hiru testutako informazioaren bidez eta hainbat irudiren laguntzaz azalduko zaie. Ikasleek irudiak aztertuko dituzte, bertan ikusten dutena deskribatzeko eskatuko diegu eta hori egindakoa



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

argazkia eta horri dagokion argazki-oina lotzeari ekingo diote. Ondoren, hiru testuak irakurriko dituzte eta aurretik ikusitako irudiekin lotzen saiatuko dira. Testu bakoitzak bi argazkirekin du lotura. Irudi horiek udal artxiboko argazki zaharrak izango dira. Lehenengo testuarekin lotura duen irudirik ez daukagu (inon aurkitu ez dugulako) eta ikasleek horretaz ohartu egin beharko dute. Horren arrazoia zein izan litekeen galdetuko diegu. Testuko informazioa kontuan hartuta beraien esango diegu marrazki bat egiteko.

**Oharra:** agian komeniko litzateke, marrazkia herrira bisita egiten dutenean eta San Bartolome, Buztuntza eta inguru horiek ikusi ondoren egitea; ikasleek leku horiek beraien begiekin ikusi ondoren, alegia. Horrela beren imajinazioari hegoak zabalduko dizkiogu.

*JARDUERA: Esaldia irudiari lotu! Esaldi hauek ondoko irudien argazki oinak dira. Zein zeinena, ordea? Idatzi esaldi bakoitzaren aldameneko borobilean dagokion argazkiaren zenbakia.*

*Liburuxkako 8. orrialdea.*

*JARDUERA: Hemen, berriz, hiru irakurgai dituzu. Gure herria azken mendeotan nola eraldatu den azaltzen digute eta argazkiekin badute zerikusia. Lotuko al zenituzke? Jarri testuaren azpiko laukitxoan argazkien zenbakiak.*

*Liburuxkako 9. orrialdea.*

**SOLUZIOA: Aurreko bi jardueretako soluzioak**

Argazkiak	Argazki-oinak	Testuak
1	Hiri-gutuna	2. testua
2	Zakugurdiak gaur egungo errepide nagusiaren lekuan	3. testua
3	Gure herria harresi batez inguratutik	2. testua
4	Trena Ordiziara iritsi zenean	3. testua



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*JARDUERA: Konturatu al zara lehenengo testuarekin loturarik duen argazkirik ez daukagula? Horren ordez, Egingo al duzu zuk marrazki polit bat?*

*Liburuxkako 10. orrialdea.*

Testuak irakurritakoan bertako informazioa ondo ulertu ote duten jakiteko, egia/ gezurra motako esaldiak erantzungo dituzte.

*JARDUERA: Ea ondo ulertu duzun Ordizia nola aldatu eta hazi den!*

*Liburuxkako 11. orrialdea*

#### **SOLUZIOA:**

- |                     |                     |
|---------------------|---------------------|
| 1. esaldia: gezurra | 5. esaldia: gezurra |
| 2. esaldia: gezurra | 6. esaldia: egia    |
| 3. esaldia: egia    | 7. esaldia: gezurra |
| 4. esaldia: egia    |                     |

#### **GURE ARMARRIA**

Herri bakoitzak bere izena duen bezala, bere armarrria duela adieraziko diegu ikasleei. Ordiziako Udalak armarrri bat baino gehiago baditu ere -1875ean hiriko bandera bordatzerakoan egin zena- hemengo hau da Ordiziako armarrri ofiziala. Honek irudikatzen baitu Ordiziako armarrri zaharrena, Santa Maria parrokiako sakristiako atean egurrean pintatutakoa, 1568an eginikoa.

Gaztelua azaltzearen arrazoia zein izan litekeen galdetuko diegu. Aurreko testuetan badute nahikoa informazio galdera horri behar bezala erantzuteko.

Ordiziako armarrria inoiz nonbait ikusi duten galdetuko diegu. Herrian barrena begiak zabaltzeko eta adi-adi begira jarrita aurkitzeko eskatuko diegu.





Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

Non ote dago? udaltzainen autoan, udaletxeko idatzietan, udaletxeko bulegoko ateetan...

**JARDUERA:**

**X** Herri bakoitzak du bere armaria. Ordiziak ere badu berea. Zein ote da, ordea? Zergatik ote du itxura hori?

**X** Ordiziako armaria toki batean baino gehiagotan ikusteko aukera duzu. Honezkerononbait ikusiko zenuen ezta? Ireki begiak eta hasi begira... Non ote dago?

Liburuxkako 11. orrialdea.

### 3- GURE HERRIA ERDI AROTIK GAUR EGUNERA

Ikasleei, aurrean duten irudia antzina-antzinako Ordizia dela esango diegu eta bertan hiru kaleak eta lau ateak kokatzeko eskatuko diegu. Lau koordinatuak kontuan hartuko dira eta horretarako koordinatuen abestia irakurtzea komeni da, horrek lagundu egingo die eta. Hiribilduaren forma obalatu edo almendra itxuran erreparatuko dugu. Gasteizek ere horrelakoa duela adieraziko diegu. Donostiak, berriz, karratua eta Segurak triangeluarra.

**JARDUERA.** Kokatu. Asmatuko al zenuke plano honetan lau ateak eta hiru kaleak kokatzen? Kokatu bada, aurrean duzun planoan hiru kaleak eta lau ateak. Ea abesti honek laguntzen dizun horretan.

Liburuxkako 12. orrialdea.

Denborarekin, Gerra karlistak bukatu ondoren, harresia eta lau ateak bota egin zituzten eta herria lau aldeetara zabaltzen joan zen. Ikasleek aurrean gaur egungo zenbait kale eta auzoren izenak izango dituzte eta gaur egungo planoari begiratuta, aurreko hiribilduaren planoan kokatzen joan beharko dute: iparraldean, hegoaldean, mendebaldean eta ekialdean. Horrela, gure herria lau aldeetara nola zabaldu den ikusi ahal izango dute.

Gaur egungo planoaren informazio osagarria dagoen gunean aurkituko duzue.



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*JARDUERA: Gure herria erdiguneteik lau aldeetara zabaldu da. Aldera dezagun Villafranca hiribildua eta gaur egungo Ordizia. Har ditzagun, esate baterako, hemen behean aipatzen diren kale, auzo eta etorbideak eta koka ditzagun gutxi gorabehera, ezkerreko irudian. Horrela, gure herria nola zabaldu den ikusi ahal izango duzu.*

- X Urdaneta kalea*
- X Buztuntza auzoa*
- X Gudarien etorbidea*
- X Filipineta kalea*
- X Altamira auzoa*
- X Aita Urdaneta auzoa*
- X Garagartza plaza*

*Liburuxkako 13. orrialdea*

## **OINETXE ETA JAUREGIAK**

Esan dugu, herrian badirela zenbait etxe esanguratsu, hasiera hartako jende boteretsuenak zirenak. Etxe horiek besteen aldean badituzte, gaur egun ere, hainbat gauza adierazgarri, esaterako armarrria. Ikasleek horretaz jabetu beharko dute. Jarduera hau herrigunera bisita egin ondoren egin daiteke, hala ikasleek informazio gehiago izango dute.

Bederatzi oinetxe eta jauregiren argazkiak izango dituzte aurrean. Taldeka aztertuko dituzte eta ea ezagutzen dituzten galdetuko diegu.

*JARDUERA: Etxe hauek oso antzinakoak dira eta gehienek badute zerbait adierazgarria. Zer ote da? Zergatik izango dela uste duzu?*

*Liburuxkako 14. orrialdea*

*JARDUERA: Lotu etxeak eta izenak. Zein irudi dagokio esaldi bakoitzari? Idatzi zenbakia ondoko borobilean.*

*Liburuxkako 15. orrialdea*



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

SOLUZIOA:	
Oinetxe eta jauregiak	Argazkiaren zenbakia
Ibarbia etxeak etxearen kantoiko balkoian armarri ikusgarria dauka	5
Sujetoeneak margo bereziak ditu teilatupean.	2
Abaria jauregia Plaza Nagusiko kantoian dago. Armarrian bi otso ditu.	7
Zabale baserriak lau dorre zituen garai batean. Gaur egun bakarra du.	8
Barretxen Erdi Aroko harresiaren zati bat dago, gezileiho batekin.	3
Muxika dorretxea elizaren aldamenean dago. Postetxea bertan dago.	9
Barrenak lorategi ederrak ditu. Ordiziarrek gehien darabilten jauregia da.	4
Zabala jauregiak bi arkuko balkoia du. Nobleek eta jauntxoek bertan hartzen zuten ostatu.	1
Udaletxean herriari buruzko erabakiak hartzen dira. Balkoian ikurriña dago zintzilik.	6

## ERDIGUNERA IRTEERA

Ikasitako guztia aurrez aurre ikusteko irteera proposatzen dugu.

Bisitaldia San Bartolomeko basilikan has daiteke, ikasleek ikasi ahal izan duten bezala, gure herriaren sorrera bertan kokatzen delako. Geltokiko eskaileretatik igo, bertatik elizako dorre begiralea ikusi eta bakardadeko atetik sartu erdigunera. Bisitaldia Buztuntzan bukatuko da ikastetxera joan aurretik. Garai hartako aztarnarik ba ote dagoen begiratu. Argazki-kamerarekin irten, bisitaldian ateratako argazkiak gelan egiteko jardueraren batean erabili ahal izateko.

*JARDUERA: Ziur nago dagoeneko asko ikasi duzula. Ba orain, ikasitakoa aurrez aurre ikusteko aukera paregabea duzu. UTZI DENA ETA GOAZEN ORDIZIAKO HERRIGUNEA ARAKATZERA!!! EZ AHAZTU ARGAZKI KAMERA!!!*

*Liburuxkako 15. orrialdea.*



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

### IKUSI-MAKUSI: ARGAZKIAK IKUSI

Ikasleek informazio osagarria dagoen gunean herriko oinetxe, jauregi edo beste hainbat tokitako xehetasunen argazkiak izango dituzte ikusgai. Bisitaldia egin aurretik azter ditzakete argazki horiek non ote dauden pentsatzen jarriko ditugu. Irteera egin ondoren, herrian barrena begiak zabal-zabal dituztela ibili ote diren ikusi ahal izango dugu. Horretarako, taldeka jarriko ditugu eta joku moduan non dauden galdetuko diegu. Ea zenbat asmatzen dituzten!

*JARDUERA: Kattalinek argazki ugari atera du eta webgunean jarri ditu. Hona hemen batzuk. Ezetz asmatu non eginak diren!*

*Liburuxkako 15. orrialdea.*

*PROPOSAMENA: Bisita egin ondoren, herriguneko planoan dorretxeak eta jauregiak kokatu. Plano hau informazio osagarria dagoen gunean aurkituko duzue.*

### IZENDEGIA

Ordiziako zenbait kalek, beste herri askotako kaleek bezalaxe, pertsona baten izena dute. Adibidez: Joseba Rezola kalea. Hori zergatik ote den pentsatzen eta bere iritzia ematen jarriko ditugu ikasleak. Ikasleek loturak egin ondoren, kale izendegian konprobatu beharko dute ea ondo dauden ala ez. Kale izendegian alfabetikoki daude ordenatuta eta alfabetoa lantzeko ondo etorriko zaie jarduera hau.

Kale izendegia material osagarria dagoen gunean aurkituko duzue.

*JARDUERA: Ez dakit konturatuko zinen, baina gure kale batzuk pertsona izena dute. Hemen dituzu batzuk. Lotu izena eta abizenak eta kale izendegian egiaztatu. Ea zenbat asmatzen dituzun!*

*Liburuxkako 16. Orrialdea*



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

**SOLUZIOA:**

- X Nicolas Lekuona plaza.
- X Domingo Unanue plaza.
- X Joseba Rezola pasealekua.
- X Aita Urdaneta auzoa.
- X Jose Migel Barandiaran plaza.
- X Victor Mendizabal kalea.
- X Domingo Goitia Kalea.

Ikasleek hausnarketa lana egin beharko dute; ea zergatik ote duten gure kaleek pertsona izena. Taldean arituko dira horren inguruan.

**JARDUERA:**

**X Erantzun taldeka ondorengo galderak:**

- Ezagutzen al duzu kale, plaza edo auzo horietakoren bat?
- Zergatik ote du kale batek pertsona izena?
- Zure ustez, pertsona horiek hilda ala bizirik ote daude? Zergatik?
- Zein ote da lanbide hori duen pertsona? Datuak zerorrek bilatzea izango duzu egokiena. Informazio ugari aurkituko duzu web gunean.

Liburuxkako 16. orrialdea.

Kale izena duten pertsona horiek ezagunak dira bere lanbide edo jardueragatik.

**SOLUZIOA:**

Lanbidea	Pertsona
Arkitekto ospetsua izan zen, besteak beste, Herri Antzokia eraiki zuen.	Domingo Unanue
Oso artista entzutetsua izan zen: margolaria, argazkilaria...	Nicolas Lekuona
CAF lantegiko sortzaileetako bat izan zen.	Domingo Goitia
Ordiziarra ez izan arren, plaza bat dauka bertan. Euskal Herrian oso ezaguna da: ikerlaria, antropologoa, mitologian aditua...	Jose Migel Barandiaran
Esploratzaile eta nabigatzaile ausarta izan zen.	Aita Urdaneta



## Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

Beste kale batzuk herritarren artean animalia izenez edo beste arrazoi bategatik dira ezagunak, nahiz eta gure kale izendegian beste izen batzuekin azaldu: Astokale, Oilokale, Ganadu plaza, Txakurtxulo, Eskarabilla...

Ikasleak kale horiek zeintzuk diren eta zergatik duten izen hori ikertzen jarriko ditugu. Horretarako onena galdeketa bat prestatzea eta galdeketa hori adineko herritar batzuei egitea litzateke. Herritar horiek ikastetxera eraman daitezke edo etxekoei egin daiteke galdeketa...

Galdeketa horretatik atera beharreko informazioa: izen herrikoi horrek zergatik duen izen hori, non dagoen kale hori eta gaur egun zein izen duen.

*JARDUERA: Beste kale batzuk, berriz, animalia baten izena dute, edo bestelakoa... Prestatu zure galdeketa.*

*Liburuxkako 17. orrialdea.*

*PROPOSAMENA: Kaleen izenak ikasteko, kalera ateratzea onena! Beraz, ikasleak kalerako bidean jar ditzakegu zenbait kaleren zerrendarekin. Beraien lana zerrenda horretan azaltzen diren kaleen izenak aurkitzea izango da. Kale bakoitzean ikusi duten zerbait adierazgarria aipatzea ere komeniko litzateke. Ikastolatik ateratakoan etxerako lana izan daiteke, baina binaka edo hirunaka egiteko.*

### **PERTSONAIA EZKUTUA**

Ikasleek testua irakurtzeko eta entzuteko aukera izango dute eta hala, gure herriko pertsonaia entzutetsuenetako bat ezagutuko dute gertutik, Aita Andres Urdaneta, hain zuzen. Duela urte gutxi bere heriotzaren V. mendeurrena izan zen eta asko hitz egin zen pertsona honi buruz. Hala ere, ziurrenik uste baino askoz gutxiago jakingo dugu beraren inguruan, ez al da hala?

**JARDUERA:**

**X** Den-dena ulertu ote duzu? Ea, bada, egia den!

- Dagoeneko jakingo duzu zein naizen ezta? Zer zenekien orain arte niri buruz?



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

- Nire bizialdian “gorriak eta beltzak” ikusi nituela esan dizuet, zer esan nahi ote dut horrekin? “Serio demonio” ikasi nuela ere bai, zuek hori nola esango zenukete?
- Nire bizitza harrigarri samarra irudituko zitzaizun akaso? Zerk harritu zaitu gehien?
- Norbaitek galdetuko balizu, NOR naizen eta ZERGATIK naizen hain ezaguna, ZER esango zenioke hitz gutxitan?

*Liburuxkako 19. orrialdea.*

*JARDUERA: Populazioa. Gure pertsonaia ezkutua jaio zenean, XVI. mendearen hasieran, 500 biztanle inguru omen zituen Ordiziak. Orduetik hona asko hazi da herria, baina gorabehera ugariekin. 1975. urtean 10.000 biztanle gehiago omen ginen. Eta orain zenbat gara?*

*Informazio hau lortzeko Ordiziako Udaleko webgunera jo daiteke.*

*Liburuxkako 19. orrialdea.*

## **BIZIMODUA**

Erdi Aroan Ordiziak hiri izaera eduki arren, naturak eta landa munduak izugarriko garrantzia zuten. Hain zuzen ere horrexegatik, baratzea, basoa eta ibaia hiru iturri garrantzitsu ziren elikagairik beharrezkoenak eskuratzeko.

Garai hartan jendea ez zen gaur egun bezala bizi, ez horixe, dena oso desberdina zen: etxeak, jakiak, lanbideak... Zenbait irudi ikusita garai hartako bizimodua nolakoa izan zitekeen adierazi beharko dute ikasleek. Taldeka hitz egingo dute eta denen artean komentatu ondoren, irudi bakoitzaren azpiko galderak taldean adostutakoarekin erantzungo dituzte. Galderei behar bezala erantzuteko informazioa, informazio osagarria dagoen gunean aurkituko duzue.

*JARDUERA: Galderei erantzun. Horretarako, gogoan izan aski informazio aurkituko duzula web gunean.*

*Liburuxkako 20. orrialdea.*

Garai hartako lanbideak ere bizimoduarekin zuten lotura estua. Batzuek landa munduarekin zuten zerikusia: nekazariak, artzainak, arrantzaleak eta errotariak. Beste batzuek, berriz, hiribildu barruan zeuden: merkatariak, artisauak, ehungileak, jostunak, arotzak...



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

Lanbide bakoitzaren zeregina zein den komenta daiteke. Ea ikasleek zenbat lanbide ezagutzen dituzten ikusi, lanbide horiek gaur egun arte iraun duten aztertu. Gaur egungo lanbideei buruz hitz egin. Garai hartako lanbideen artean eta gaur egungoen artean zein alde dagoen aztertu...

*JARDUERA: Hizki zopan lanbideak aurkitu. Garai hartako lanbide batzuk landa munduarekin zuten zerikusia: nekazariak, artzainak, arrantzaleak eta errotariak, esaterako. Beste batzuk, berriz, hiribildu barruan zeuden: merkatariak, artisauak, ehungileak, jostunak, arotzak, okinak, ferratzaileak... Horietako 7 dituzu ondorengo hizki zopan. Ea aurkitzen dituzun!*

*Liburuxkako 21. orrialdean.*

**SOLUZIOA:**

F	E	R	R	A	T	Z	A	I	L	E	A	K	L	M
E	U	J	A	R	T	I	S	A	U	A	O	I	Z	E
T	I	Z	T	K	H	N	L	E	K	A	L	R	A	R
X	R	K	U	A	I	O	K	I	N	A	O	A	I	K
A	R	I	L	K	K	L	T	P	U	I	K	T	O	A
R	A	O	E	H	U	N	G	I	L	E	A	T	P	T
O	I	N	T	O	Ñ	Y	R	M	K	P	M	B	A	A
T	X	L	Ñ	Z	S	O	R	G	I	N	A	K	I	R
Z	K	L	N	E	K	A	Z	A	R	I	A	N	W	I
A	Z	A	L	D	I	A	K	I	T	A	R	R	I	A

Herri eta hiri askotako kale edo etxe batzuek lanbide izena dutela aipatuko diegu ikasleei, Gasteizko Alde Zaharra da horren adibide garbia. Ordizian ere etxe batek badu lanbide baten izena. Gaur egun etxea erabat berrituta badago ere, gure aitona-amonek "Perratzailenea" izena erabiltzen dute etxe horri buruz zerbait esan nahi dutenean.

Perratzailenea; hau da perratzailearen etxea. *-(e)nea* atzizkiak jabearen izen, abizen edo ezizenari lotuta agertzen denean etxea adierazten duela azalduko diegu ikasleei. Etxe gehiagoren adibideak: Abarienea, Sujetoenea... Gaur egun, taberna baten izenak ere atzizki hori darama: Amonane.





Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*JARDUERA: Ezetz asmatu! Hemen aipatzen den lanbideetako batek izena eman dio Ordiziako etxe bati. Gaur egun erabat berrituta dago. Zein da lanbidea eta zein da etxe hori?*

*Liburuxkako 21. orrialdea.*

#### **ANTZINAKO OSPAKIZUNAK GURE ARTEAN**

Ordiziak aspalditik duela jai eta alaitasunerako tradizioa esango diegu ikasleei. Orain dela 500 urte baino gehiago egiten hasi zen **Santanazaleen Aurreaskua** da horietako bat, herriko jaietan plazan ezkonberriek dantzatzen dutena. Ordiziako santanazaleen kofradiaren berri zaharrena 1509koa da. Egun horretan, emakume ezkonberriek Andres Urdanetak Filipinetatik ekarritako mantilak janzen dituzte. Antzinatik datorren beste ospakizun bat **San Juan sua** da, San Juan bezperan ospatzen dena. Egun horretan zer eta nola ospatzen den azalduko diegu ikasleei.

Aldi berean, zein ospakizun gehiago ezagutzen dituzten galdetuko diegu eta horiek arbelean idatz daitezke. Dena den, gai hau luze eta zabal beste unitate batean jorratuko da. Honetan, antzinatik datozen ospakizunen berri besterik ez diegu emango ikasleei.

*JARDUERA: Ondorengo irudiarekin zerikusia duen beste ospakizun bat askoz lehenagotik datorkigu. Murumendiko Mari ere bertan izaten da. Ba al dakizu zein den?*

*Liburuxkako 21. orrialdea.*

#### **4- AZOKA**

Ikasleek Ordizia sutan azaltzen den irudia ikusiko dute eta irudi horrek zer esan nahi ote duen hausnarketa lanean jarrito ditugu taldeka. Talde bakoitzaren erantzunak idatziko ditugu arbelean. Guk ez diegu argibiderik emango. Ondoren ipuin bat entzungo dutela eta adi-adi entzuteko eskatuko diegu. Ipuina entzun eta gero berriro irudia aztertuko dugu eta arbelean idatzitako erantzunak zuzenak diren galdetuko diegu.

*JARDUERA: Tarteka eta egun jakinik gabe egiten zen merkatua astero-astero egiten hasi zen halako batean, asteazkenetan hain zuzen. Zergatik ote? Aztertu taldeka ondorengo irudia, agian pistaren bat emango dizu eta!*



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*Liburuxkako 22. orrialdea.*

*JARDUERA: Entzun adi-adi jarraian datorrena. Irudi honekin zerikusia duen istorioa kontatuko dizugu. Aldameneko orrialdean idatzita dator.*

*Liburuxkako 22. orrialdea.*

Ipuina entzun ondoren, gelan bertan irakur daiteke edo bestela etxerako utzi.

*JARDUERA: Honezkerok jakingo duzu NOIZ, NOLA eta ZERGATIK hasi zen egiten Ordizian asteazkeneko azoka. Idatzi beheko lerroetan. Gero etxean kontatu!*

*Liburuxkako 23. orrialdea.*

## **AMONA AGEDAREN KONTUAK**

Periak eta merkatuak historian zehar bi funtzio nagusi bete izan ditu: salgaiak eta dirua trukatzearen gune izateaz gain, bizilagunen eta bidaiarien topaleku eta jakintzak, albisteak eta zurrumurruak abian jartzeko leku ere izan dira.

Horren berri ematen digu Kattalinen amona Agedak kontakizun polit honetan. Kontakizuna entzuteko eta irakurtzeko aukera izango dute ikasleek. Hori egin ondoren, baserriko lanak zeintzuk diren aipatzeko aprobetxa dezakegu eta horiek arbelean idatziko ditugu. Baserriko lanen banaketari buruz ere hitz egin daiteke: emakumeen lanak eta gizonezkoen lanak zeintzuk diren zehaztuz.

Amona Agedak kontakizunean aipatzen dituen zenbait kontu ondorengo argazkietan irudikatzen dira. Ikasleek adi entzun eta irakurri badute kontakizuna konturatuko dira horretaz. Hori dela eta, argazkietan azaltzen dena testuan azpimarratzeko eska diezaiekegu batetik, eta argazki bakoitzari bere argazki-oina jartzeko bestetik. Argazki-oinak lauzpabost hitzez osatutako esaldi motzak izango dira.

Argazki gehienak 1934ko Santa Aldizkarian argitaratuak dira.



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*JARDUERA: Azalpenak idatzi.*

*Irudi zahar hauek 1934an egin zituzten gehienak. Konturatuko zarenez, lehenak izan ezik, gainerakoek argazki-oina behar dute. Idatziko al dituzu zuk?*

*Liburuxkako 25. orrialdea.*

### **BERTSOA: ORDIZIAKO AZOKA**

Periak edo azokak betetzen dituen bi funtzio horiek Iñaki Muruaren bertsoan ere argi ikusten dira. Bertsoa zortziko handian dago.

Hasteko bertsoa irakurri eta landu egingo dugu.

*JARDUERA:*

**X** Bertsoaren egitura landu.

● Bertsoaren beraren egitura landu dezakegu. Hala ikasleei bertsoak zortziko handian zergatik dauden azalduko diegu: zortzi esaldi dituzte eta esaldi bakoitietan 10 silaba eta bakoitietan 8 silaba daudelako.

● Errima bertso bakoitietan egiten dela adieraziko diegu eta horretaz kontura daitezen oinak azpimarratzeko eska diezaiekegu.

● Azkeneko bertsoko oinak dagokien tokian kokatu.

● Bertso osoa entzun.

● Lehenengo bi bertsoak entzun "Peio Joxepe" doinuan eta ondoren, ikasleek beste biak abestuko dituzte doinu horretan. Gauza bera egin daiteke "Andre Madalen" doinuarekin. Kontua da ikasleak konturatzea bertso bera doinu desberdinetan abes daitekeela.

**X** Bertsoaren edukia landu.

Bertsoan azokan ikus ditzakegun makina bat gauzaren izenak azaltzen direla ohartaraziko ditugu ikasleak. Hitzak hiru taldetan sailkatuko ditugu eta horretarako kolore desberdinak erabiliko ditugu.

● Koloreztatu bertsoan **berdez** barazkien izenak, **gorriz** fruituak eta **urdinez** animaliak.

*Liburuxkako 26. orrialdea.*

### **AZOKAKO ARGAZKIA**

Plazako argazkia lagun dugula azokako salgai guztiak ez direla toki berean egoten esango diegu ikasleei:



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

- X Plazako arkupean baserriko barazki eta fruituak saltzen dira eta baita gozo eta goxokiak ere.
- X Aldemeneetan fruitu postuak egoten dira.
- X Udaletxe azpian gazta eta garai batean baita zenbait animalia ere: arkumeak, esaterako.
- X Arboleda eta frontoi inguruan arropa.
- X ...

Argazkia gure barazketako barazkiak ezagutzeko eta beraien izenak ikasteko aprobetxa dezakegu. Aldi berean barazkiak eta fruituak jatearen onurak azpimarra ditzakegu.

*JARDUERA: Bertsoan makina bat barazki eta fruituren izenak azaltzen dira. Hor aipatzen direnietatik bakarren bat ikusten al duzu postu eder honetan?*

*Liburuxkako 27. orrialdea.*

*PROPOSAMENA: Komenigarria da ikasleak ikasten joatea zenbait barazki eta fruituk hainbat ezaugarri dituztela komunean: bertako produktuak izatea, garai berekoak izatea (udaberri, uda, udazken, negu)...*

*Horretarako, irudi multzo batzuk izango dituzte eta beraiek jaki bakoitzaren izena ahoz azalduko dute. Aldi berean multzo bakoitzeko irudiek zer duten komunean adierazi beharko dute idatziz. Horretarako zenbait aukera emango zaizkie. Jarduera hau Jolasen atalean aurkituko duzue.*

## **ORDIZIARRAK AZAK GARA ETA ZU?**

Euskal Herriko herri askotako jendeak badu bere ezizena edo goitizena. Hori antzinatik datorren ohitura da eta noiz eta zergatik sortuak diren jakin ez badakigu ere, gehienok harro gaude gure ezizenarekin. Ordiziakoak azak gara.

Ikasleen lana Goierriko zenbait herritako ezizenak edo goitzenak zeintzuk diren ikertzea da. Horretarako, etxekoei edo ingurukoei galde diezaiekete. Taldeka egin daiteke txapelketa moduan eta gehien asmatzen dituen taldea izango da irabazlea.



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*JARDUERA: Goiko irudi horretan azarik ikusten al duzu? Ba al zenekien ordiziarroi aza esaten digutela? Eta Beasaingoei bareak? Eta Itsasondokoei...?*

*Liburuxkako 27. orrialdea.*

Jateko erabili ohi ditugun jaki batzuk dituzten erabilera osasungarriak aipatzea ere komenigarria da. Oso urrutira joan gabe, azarenak:

**Aza-hostoen erabilera onuragarria:**

- Enplastoak egiteko.
- Arto opila biltzeko.
- Garai batean baserrietan txerria hiltzen zenean, baserriz baserri banatzen ziren txerrikiak aza hostoetan biltzen ziren, hobeto kontserbatzeko.
- Ama umeari bularra ematen ari zaionean, titiburuetan sortzen diren zauriak sendatzeko.

*PROPOSAMENA: Ikasleei esan diezaiekegu etxean galdetzeko ea ezagutzen duten onura bat baino gehiago duen jakiren baten izena: baratzuria, eztia... eta honen onurak zeintzuk diren idatzita ekartzeko.*

**LABIRINTOA**

Barazki eta fruituak identifikatu eta hauen izenak ikastea helburu duen jolasa proposatuko diegu ikasleei.

*JARDUERA: Lagundu Kattalini azokako itzulia egiten. Barazki eta fruta besterik ez du erosiko. Laukiz lauki joan beharko du, erosi behar dituen produktu horiek dauden tokietatik pasatuz.*

*Liburuxkako 28. orrialdea.*

**ARTELANA**

Gure herrian artista ezagunak izan ditugula adieraziko diegu ikasleei. Horien artean Nikolas Lekuona bada ere entzutetsuena, ezin dugu aipatu gabe utzi Irene Laffitte margolaria. Hau sortzez donostiarra izan arren, Ordiziako Areta Baserrian bizi izan zen urte askoan eta oso



## Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

lotura estua izan zuen gure herriarekin. Horrexegatik *Aretako Dama* izenez ere ezagutu izan zen.

Margolari donostiarra oso ezaguna da olio-pintura erabiliz egin zituen lanengatik: oilarrak, kostaldeko herriak...

Adituen esanetan Laffitteren artelanak indar handia dute eta hori kolorearen bidez lortzen zuen. Baina guk unitate honetan nabarmendu nahi duguna, *Ordiziako asteazkenak* izeneko artelana da. Hau 1972an egina da eta egun Abaria etxeko Kutxa aretoan dago ikusgai. Lan honetan artista donostiarrak Ordizian asteazkenetan sortzen den giroa azaldu nahi izan zuen; plaza jendez gainezka eta guztiz builoso.

Gure ikasleei ohiko margoak, tenperak, argizarizko margoak edo beste margo bereziren bat erabiliz Ordiziako azoka margotzeko eskatuko diegu. Bertan, beraiek Ordiziako azokan nabarmendu nahiko luketeena azaltzeko esango diegu.

Lanak erakusgai jar daitezke, Barrenan edo D'Elikatuzen.

*JARDUERA: Orain zure txanda da. Hartu papera eta margoak eta pintatu Ordiziako azoka. Irene Laffittek asteazkenetako giro builosoari erreparatu zion bezala, zuk zeri erreparatuko zenioke?*

*Liburuxkako 29. orrialdea.*

### **PERIKO ELKARRIZKETAK**

Jarduera honen helburua ikasleak euskalkiaren garrantziaz jabetzea da. Izan ere, ez dugu berdin hitz egiten eta idazten eta gainera toki bakoitzak badu bere hitz egiteko modu berezia. Hori horrela izanik, geure geureak ditugun ahoskera eta esamoldeak ikasleen ahotan jartzen ahaleginduko gara.

Horretarako periko hiru egoeratako elkarrizketak irakurri eta entzungo dituzte ikasleek. Elkarrizketa bakoitzean esaldi pare bat falta da. Ikasleek horretaz ohartu beharko dute eta esaldi bakoitza dagokion tokian kokatzen ahaleginduko dira. Elkarrizketak landu eta gero, antzeko bat sortzeko eskatuko diegu eta ondoren, antzestu egingo dute. Elkarrizketek ez dute zertan azoka girokoak izan behar.



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

**JARDUERA:**

- X Elkarrizketak irakurri.*
- X 31. orrialdeko esaldiak dagokien tokian kokatu.*
- X Elkarrizketak entzun eta konprobatu ondo kokatu dituzten esaldiak.*
- X Binaka edo hirunaka elkarrizketak sortu eta antzestu.*

*Liburuxkako 31. orrialdea.*

**PERIKO BERRIKETAK (Osagarria)**

Ordiziako azoka lagun arteko elkargune eta solasaldirako gune paregabea ere izan da eta oraindik ere bada. Beraz, azokara joatea ez da inoiz eginkizun aspergarria izan.

Asteazkeneroko hitzordua Ordiziako azokan ezinbestekoa izan da askorentzat, batik bat baserritarrentzat. Hitzordu horietara ia hutsik ere egiten ez zuenetako bat, zalantzarik gabe, Lazkao Txiki izan zen. Beti jendez inguraturik ikusiko zenuen, hamaika barre-algara eginaraziz.

Pernando Amezketarrak ere inguruko periak ederki ezagutzen zituen. Pernando ez zen gizon makala izan, ez horixe! Bizkorra eta buru argikoa zen. Zenbat eta zenbat pasadizo bizi ote zituen han-hemenka. Auskalo!

**PROPOSAMENA:**

- X Lazkao Txikiren eta Pernando Amezketarraren pasadizoak irakurri. Hauek informazio osagarria dagoen gunean aurkituko dituzue.*
- X Pasadizo hauek antzezarazi, ahozko espresioa lantzea izango da helburua.*
- X Pernando Amezketarra eta Lazkao Txiki ezagutarazi. Informazioa bilatu. Galderak eman eta horien inguruko informazioa bilarazi. Bi taldetan egin daiteke eta gero binaka jarrita elkarrekin informazioa trukatu.*
- X Bien pasadizoren bat ikusi; ETB-n emandako saioak kontuan izan horretarako.*

**IPUIN DIDAKTIKOAK (Osagarria)**

Patxi Zubizarretak "Urrezko giltza" liburuan zenbait kontakizun herrikoi eta ezagun jasota ditu. Horietako bi ekarri ditugu hona; izan ere, biek dute nolabaiteko lotura azokarekin eta biek dute ikasbide bat.



## Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

Ikasleen egitekoa ipuin horietako bat edo biak irakurri eta zer adierazi nahi diguten antzematea izango da. Hauek informazio osagarria dagoen gunean aurkituko dituzue.

### AZOKAREKIN LOTUTAKO PROPOSAMEN GEHIAGO:

**X** Azokako irudi zaharrak azertu eta beraiei buruz hitz egin. Komeniko litzateke irudi horien garaiko norbait eramatea ikastetxera (norbaiten aitona-amona) eta garai hura gogora ekartzea.

**X** Jakiekin zerikusia duten esaerak lantzeko aukera ona dugu:

- A ze artaburue!!!
- Baratxurie baino finagoa da!!!
- Eztie baino gozoagoa da!!!

**X** Neurriak ikasteko aprobetxa dezakegu: kilo, kilo erdia, kilo eta erdi, dozena, dozena erdia... Garai bateko neurriak sar daitezke. Pisua eraman gelara eta horrekin landu.

**X** Gelan, azoka bat irudikatu eta antzeztu: azokan erosketak egiterakoan erabiltzen diren zenbait espresio ikas daitezke: "A ze itxura duten azenario horiek!", "Eder askoak daude!", "Fresko-freskoak dituzu!", "Garesti samarrak, ezta?", "Bertakoak al dira?", "Zenbatean daude?", "Jarriazu kilo bat"...

**X** Irteera: zerrenda eta dirua eman, eta erosketak eginarazi, talde txikitan, pertsona heldu batekin. Irteera hori animalia izenez ezagunak diren kaleak ikusteko aprobetxatu: Astokale, Oilokale, Txerrikale, Ganadu plaza...

Irteera horretan argazkiak atera daitezke: produktuei, puestoei, jendearen arteko harremanei, eta erakusketa bat egin ikastolan edo D'Elikatuzen. Azokaren V. mendeurrena dela eta, umeez ere utz dezatela beraien arrastoa herrian urtean zehar egingo diren ekintzetan.

## 5- AMAIERA

### IKASITAKO LABURBILDUZ

Helburua ikasleek unitatean ikasi dutena hainbat esalditan biltzea da. Jarduera hau taldeka egin daiteke.

**JARDUERA:** Kattalinez izugarri ikasi duela ematen du. Ordiziari buruzko gauza asko eta asko jakin ditu Mariaren istorioen bidez, aitona Peruk eta amona Agedak esandako kontuekin, argazki zaharrak begiratu, etxekoei eta herriko jendeari galderak eginez, herriguneko txokoak arakatu...





Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

*Adibidez: Ordizia aspaldi-aspaldi San Bartolome basilizaren inguruan sortu zela.*

*Eta zuk zer ikasi duzu? Idatzi, idatzi hemen!*

*Liburuxkako 32. orrialdea.*

#### UNITATE BUKAERAN EGITEKO PROPOSAMEN GEHIAGO:

**X** Unitateak proposatutako irakurgai eta entzungaietatik jasotako informazioarekin, ateratako argazkiekin, egindako marrazkiekin, planoren bat sartuz, pertsonaiaren bat aipatuz... horma-irudi bat egin eta horren berri eman txikiagoei edo zaharragoei. Horma-irudi horiek erakusgai jarri ikastetxean.

**X** Herriko pertsoanaia bati, Urdanetari esaterako, bere garaitik gaur egunera Ordizia nola aldatu den azaldu eskutitz batean. Aldez aurretik eskutitz baten egitura landu.

**X** Idatzi hori egin daiteke, baina halako pertsoanaia historiko bati zuzendu beharrean, beste herri batean bizi den lagun bati idatzi Ordiziara etorriko balitz nora joan eta zer ikusi beharko lukeen azalduz. Aldez aurretik hori landu.

**X** Unitatean ikasitakoa eta ikusitakoa kontuan hartuta garai bateko Ordiziako alde onak eta gaur egungo Ordiziakoak aipatu.

**X** Altxorraren bila joko; herriko zirrikituak eta hauen izenak ezagutzeko aukera paregabea delako.

**X** Webgunerako: ardatz kronologikoa eginarazi ikasleei eta igo webgunera.

#### JARRAIPENA

Zalantzarik gabe ikasleek Ordiziari buruz asko ikasiko zuten, baina ziurrenik, Kattalinek bezalaxe, gehiago ikasteko eta jakiteko gogoia izango dute. Zer ordea? Horixe da galdetuko dieguna; izan ere, gure bidaia ez da oraindik bukatu, honek jarraipena dauka...

*JARDUERA: Baina badakizu? Nire ametsa gure herria ezagutzen jarraitzea da. Nire sekretua da hori. Eta zurea? Zer iruditzen zaizu? Bai? Primeran! Baina badakizu sekretuekin kontu handiz ibili behar dela... Bai horixe! Aitona Peruk esaten duen bezala: "Marabara, maraberi, kontakatilu hitzuna bertan hil bedi!".*

*Liburuxkako 32. orrialdea.*



Ordizia -1. Unitatea: Kilo bat istorio

## BIBLIOGRAFIA

- X GALDÓS MONFORT, Ana: *Villafrancatik Ordiziara, historiaz jositako bidea=De Villafranca a Ordizia, un camino pleno de historia*; Eusko Ikaskuntzaren ardurapeko argiltapena. Ordiziako Udala, 2008.
- X ECHEGARAY, C.; MÚGICA, S.: *Ordiziako Monografia Historikoa*. Ordiziako Udala, Ordizia, 1983. "Villafranca de Guipuzcoa. Monografía Histórica" (1908) lanaren berrargiltapena.
- X DE MIGUEL, Jose Ramón; *Urdaneta eta bere garaia*. Ordiziako Udala, 2008.
- X ETXANIZ IRAOLA, Ainitze; ZALDUA ORTIZ DE GUZMÁN, Irati: *Ordiziako leku-izenak*. Ordiziako Udala, 2010.
- X BARANDIARAN, Jose Miguel; *Euskal Herriko mitoak=Mitos del pueblo vasco*. Donostia, 1988.
- X SANTA ANA aldizkariak.